

### EUSKALTZAINDIAK 100 URTE

Euskaltzaindiaren mendeurrenak beraren inguruan biltzen gaitu eta *Karmel* honen irakurleak ere harantz erakarri nahi nituzke. Euskaltzaindia erakunde bat da, erakunde urtetsu beneragarria, baina era berean beti gazte eta beti gaurko diraena. Arbola hostotsu eta sustraietan tinko eta zut dagoena da haren sinbolo agerikoa, adarretan goiburu sakon esanguratsua ageri duela: *Ekin eta jarrai*.

Irudimenaren laguntzaz sinboloan barrurago sartuz, euskararen lurralde osoan sustraiak dituen arbola gisa ageri zaigu, Euskal Herrian politika eta administrazio aldetik diren bereizketa eta muga guztiez gaindi zabaltzen dena. Arbola hostotsu ez eze, lorez eta askotariko fruituz betea irudikatzen dugu, eta hala da. Esan berri dena pixka bat zehaztu eta argitu beharrez, *askotariko fruituak* jarri dugu, baina izatez fruitua bat bera da lurralde guztietan; alabaina kolorea, usaina, ahogozoa, kutsua... lekuan lekuko lurretik hartuak.

Bai, eder zaigu geure gauzak bihotzaren ukituz irudikatzea, barruan berregitea, transformatzea nahierara, edota haien alde ona soilik hartzea eta gainerakoei ezikusi egitea. Gure arbolaren fruitua euskara da, noski, baina fruitu honek berariazko kolore, usain, ahogozo eta kutsua izan ohi dituela han eta hemen esan dugu. Horrela esanik, ongi geratzen da; baina gure

lurrean euskara, garai batean, sasiak hartua, zaindu eta landu gabea, bertan behera utzia, saretua eta zatikatua zegoela esango bagenu, beharbada, marra gainditu eta gauzak ilunegi ikusten ari garelako susmoa izan dezakegu. Gure arbasoak ez ziren inondik ere axolagabeak; beren ahalmenen arabera, saiatu ziren beren izaerari atxikia zen altxor hori gordetzen eta ondorengoei helarazten. Ahozkoa bai, baina literatura idatzia gurean berandukoa eta urria izan dela diote adituek. Batez ere euskara idatziaren egoera horrek eta gaurko eta biharko mundurako, irakaskuntzarako eta kulturarako hizkuntza bateratu gabea eta prestatu gabea ikusteak bultzatuko zituen, ziur asko, Eusko Ikaskuntzakoak eta lau Diputazioak Euskaltzaindia sortzera.

Esan dezadan, ohar gisa, Joan Mari Torrealdai eta Imanol Murua idazle eta kazetarien *Euskaltzaindia* (2009) liburua erabili dudala gidari gure Akademiaren ikuspegi orokor eta arin hau eskaintzerakoan.

### **Akademia baten nahia eta aldarria**

Kezka hori sumatzen zen lehenagoko garaietan ere. Jose Paulo Ulibarri (1775-1847) Arabako Okendon jaioa eta Bizkaiko Abandon albaitari ofizioa zuenarena da lehen aipamena. Nahiko argi ikusi zuen hark halako erakunde baten beharra eta baita haren helburu eta egitekoak ere. Honela dio aipaturiko liburuak:

“Jose Paulo Ulibarri Galindezek (1775-1847) *Gutunliburua*-n behin eta berriz agertzen ditu bere nahiak eta kezkak euskararen egoera eta etorkizunari buruz. (...) euskara behar dela salbatu, gorde, zaindu, piztu, eskolan sartu. Azken bertso honekin bukatzen du:

*“Ogueta lau guizon  
bihar dira izentau  
Guernicaco bazarrean  
eguiteco alegiña au  
euzkeraren ganean.”*

“Akademia hitza bera aipatzen aurrenekoa, baina, Jose Frantzisko Aizkibel (1798-1864) dela ematen du”.

“Hegoaldean geroxeago gertatuko den susperraldiaren aurrekoa da, baita ere, Jean Duvoisin (1810-1891) kapitainaren eta Anton Abadiaren arteko gutunetan agertzen den akademia baten egitasmoaren aipamen zehatza”.

Beste batzuek ere argi agertu zuten beren mina, XIX. mendean, euskararen akademiarik ez zelako. Hauen artean dugu Jose Manterola (1849-1884) folklore biltzailea, beste obra batzuen artean, *Cancionero Vasco* liburuaren egilea. Aldarrikapenez harago joan zirenak ere izan ziren, euskal akademia baten egitasmo zehatza egiteraino. Bi hauek aipatzen dira Joan Mari Torrealdei eta Imanol Muruaren liburuan: Aristides Artiñano (1874-1911) bilbotarra, eta Adolfo Gabriel Urkixo, Julio Urkixoren anaia eta Bizkaiko Diputazioaren lehendakaria. “Baina egitasmoak ez zuen aurrera egin, berriro ere. Egitasmoa zehatz-zehatza da, eta Euskaltzaindiaren ize-nean *Euskera* aldizkarian kronika idazten duenak aitortzen du hastapeneko Euskaltzaindia Urkixok emandako arautegiaz baliatzen zela”.


Hemen ageri denez, Euskaltzaindiaren sorrera ez zen ustekabekoa eta bat-batekoa izan. Aurrez askok sumatu zuten haren beharra eta askok egin zuten amets hartaz, hainbaten kasuan, haren egitura eta egitasmoa albait zehatzen taxutzeraino. Haien amets eta egitasmoak pertsona horien garaian ez ziren mamitu, baina ekarpen horiek baliagarri izan ziren asmo eder hori helduz eta osatuz joan zedin.

## Sorrera

Aurreko nahi, amets, aldarrikapen eta egitasmoetan bezala, Euskaltzaindiaren sorreran ere hainbat urrats eman ziren eta badira data batzuk, betiko geratuko direnak. Horietako lehenengoa 1918ko urtarrilaren 25ekoa da. Egun horretan Bizkaiko Foru Aldundian Akademia sortzeko proposamen zehatza zekarren txostena aurkeztu zen. Aurkezleak erdaraz Koxme Elgezabal eta Ramon Rotaetxe dira; eta euskaraz Koxme Elgezabal bera eta Felix Landaburu. Idazki horretan Euskal Herri osoa aintzat hartzen da. Bizkaiko Aldundiak hartu zuen aurrea abagune ona zela iritzita; izan ere, 1917ko hauteskunderen ondoren, abertzaleen eskuetan zen Aldundia; baina hasieratik garbi izan zuten Hegoaldeko gainerako Aldundien oniritzia eta Iparraldeko erakunderen babes eta guztien eskuhartzea behar zirela.

Bigarren urrats garrantzitsua Oñatin eman zen 1918ko irailaren 5ean, Eusko Ikaskuntza eratzeke egin zen lehenengo Biltzar Nagusian. “Akademiaren gaia jorratzeko enkargua Hizkuntza Sailari eman zitzaion. Txomin Agirre zen lehendakari, eta bokal gisa zeuden Azkue, Eleizalde, Olabide; Luis Biziola zen idazkaria.

Kongresua hasi orduko Bizkaiko proposatzaile zen Elgezabalek gaia mahai gainean jar zedila eskatu zuen. (...) Boto bidez erabaki zuten elkarte sortzea, ahobatezko baiezkoreen ondoren”. Bi sail izango zituen elkarte berriak: euskara iker-tzea eta zaintzea, gerora *Iker* saila eta *Jagon* saila deituak. Baina horrez gainera, batzorde bat eratu zen hamabost eguneko epean araudia prestatzeko. “Behin-behineko arautegiaren zirriborroa eta zuzenketa guztiak egin ostean, 1918ko azaroan bukatutzat eman zen arautegiaren auzia. Araudi proposamen hori Eusko Ikaskuntzak lau Diputazioen eskuetan utzi behar zuen, onar zezaten”.



*Ezkerretik eskuinera:*

*Eserita:* J. B. Eguskitza, B. Etxegarai, R. M. Azkue, G. Lacombe.

*Zutik:* Orixe, J. Elizalde, S. Altuna, J. Urkixo, R. Olabide (1928-05-28)

“Erakundea bideratze aldera Akademiaren lau kideak ere bertan aukeratu ziren: R.M. Azkue, L. Elizalde, J. Urkixo eta A. Campion.

Hurrengoak nola aukeratu ere erabaki zen: zazpi aldizkaritako ordezkariak emango zuten boza horretarako deituko zen biltzar batean”.

Oñatin hasitakoak Donostian izango zuen jarraipena: “Oñatik Biltzarretik urtebetera, 1919ko irailaren 21ean, Eusko Ikaskuntzak deituta biltzen dira Gipuzkoako Aldundiaren jau-regian Oñatin izendaturiko lau euskaltzainak: Resurreccion Maria Azkue, Arturo Campion, Luis Eleizalde, Julio Urkixo. Eta horiekin batera hainbat aldizkaritako zuzendariak: Karmelo

Etxegarai *riev*-en izenean, Pierre Broussain *Eskualduna*-ren izenean, Txomin Agirre *Euskal Esnalea*-ren izenean, Damaso Intza *Irugarrengo Prantziskotarra*-ren izenean, Toribio Altzaga *Euskal-Erria*-ren izenean, eta Zirilo Arzubiaga biren izenean: *Jaungoiko Zale* eta *Jesusen Biotzaren Deya*".

Hamabiko euskaltzain-kopurua izatea zen estatutuen agindua, eta aho batez aukeratu zituzten hasierako lauez gain, falta ziren gainerako zortziak: Txomin Agirre, Pierre Broussain, Blaise Adema, Ramon Intzagarai, Jose Agerre, Juan Bautista Eguskitza, Raimundo Olabide, Pierre Lhande.

Joan Mari Torrealdairen eta Imanol Muruaren liburuan kontuan hartzeko ohar bat dator; 32. orrialdean hau dio: "Akademiararen osaerak garaiko euskaltzaleen unibertsoan zegoen aniztasuna islatzen du, bai ideologiaren aldetik eta baita eskola linguistikoen aldetik ere. Eta batez ere gauza bat lortzen du Azkuek: Euskaltzaindia beregaina izatea, independentea, mendekotasun politiko eta linguistikorik gabe".

Erakunde honen erditzea ez zen erraza izan. Liburuko beste pasarte batean hau irakurtzen dugu: "Horrelaxe jarri zen Euskaltzaindia indarrean Donostiako bilkuran".

Baina hurrengo lerroetan bere bidean hainbat eragozpen sortu zitzaizkiola hasiera hartan, ohartarazten du: "Bai. Baina eratze prozesu hori luzatu egingo da 1920an zehar. Izan ere, kideetako batek, Blaise Ademak, ez du kargua onartzen; beste bat, Jose Agerre, kargua utzi beharrean dago, lana medio, kanpoan bizi behar eta ezin duelako biltzarretara etorri. Eta beste bi hil egiten dira: Txomin Agirre eta Pierre Broussain. Lau hutsarteok beteta, honela gelditzen da 1920an euskaltzain osoen lehen promozioa dei genezakeena: Resurreccion Maria-Azkue, Arturo Campion, Luis Eleizalde, Julio Urkixo, Ramon Intzagarai, Pierre Lhande, Juan Bautista Eguskitza, Raimundo Olabide, Martin Landerretxe, Georges Lacombe, Sebero Altube, Miguel Olasagarre *Damaso Intza*.



Hamabi euskaltzain oso horien ondoan hiru ohorezko hautatzen dira: Hugo Schuchardt, Julien Vinson, C.C. Uhlenbeck.

Eta gainera, 44 urgazle edo laguntzaile, kanpoko eta barruko. Kanpokoan artean aipagarri dira E. Dodgson, T. Linschmann, H. Urtel, H. Winkler, R. Menéndez Pidal”.

Euskaltzaindia, esan dugunez, Bizkaiko Foru Aldundia aitindari zela, Eusko Ikaskuntzak eta Hegoaldeko lau Aldundiek sortu zuten, Iparraldeko erakundeen oniritzi eta eskuhartzearekin; dena dela, hasieran Eusko Ikaskuntzaren mendeko elkarte zen, hizkuntza arloaz arduratuko zena, baina zientzia arloan guztiz burujabe izango zena. Horrela, hasieran, Eusko Ikaskuntzaren azpiegituraz eta haren babesaz baliatu zen. “Aurreneko bilerak Eusko Ikaskuntzaren babesean egin baziren ere, urritik aurrera beregaina bilakatu da Akademia” dio liburuak.

Euskaltzaindiak batzorde eta ardurak banatu zituen eta horien artean aipagarriak dira Azkue jaunak, lehenengo Euskaltzainburuak, esan zituen hitzak:

*Eskerrak, lagun maiteak, aulki onetan eserarazi nauzute-lako. Ziri ta sari dedala uste det zuen autatze au: ziri, aurre-rantzean orainarte baino ere gogorrago lan egin dezadan; sari, lan egin ditudanen ezaugarritzat. Gure egipidea (programa) beste bi itz auetan sar edoditeke: emeki ta gizonez. Emeki, biguñ, astiro; baina ez emakume bezela, gizonai dagokitenez baizik. Gure lanetan beaztopoa, eragozpen ta buruauste, zirikada ta nayezak maiz izango ditugu enura gabe. Iraunkor ta gogotsu bagera, azken on batera elduko dira gure lanak.*

### **Arazo eta kritikak**

Azkuek euskaltzain kideei zuzendu zizkien hitz horietan antzematen da aurrez ikusten zituela halakoak: *Gure lanetan beaztopoa, eragozpen ta buruauste, zirikada ta nayezak maiz*

*izango ditugu enura gabe* dio hitzez hitz. Halaxe gertatuko da eta Broussain euskaltzainak Azkueri gutun batean idatzirikoak egia bihurtuko dira: “Vous serez, vous particulièrement et l’Académie aussi, vilemment attaqués”. *Euskera* Agerkariaren lehen zenbakia atariko honekin hasten da:

“Gure Euskaltzaindi au jaio zan egunetik laster, asko asi ziran baltsa berria zirikatzen minki eta saminki, mingañaz eta idaztortzaz: batzuk, autatuak izan ziran euskaltzañak gai aundi ortarako egokiak etziralakoan; bestek, lendabiziko batzarretan erabakitako gaiak almen gabekoak zirala-ta”.

Kritika horiei ez zien erantzun hitzez Euskaltzaindiak eta isilik geratu zen. Etsaiei gaina hartzeko hitzak baino egintzak egokiago zirelakoan, bere lanean aurrera egin zuen.

Izan ere, gorago aipatu dugunez, Akademiaren osaerak garaiko euskaltzaleen unibertsoan zegoen aniztasuna islatzen zuela egia izan arren, barrukoen aldetik baino gehiago kanpukoen, euskararen inguruan zihardutenen, aldetik presio handia zetorren. Kontuan izan behar da, sabindarren korrontea indartsua zela eta hasieratik beren iritziak ezarri nahiko zituela, barrutik ezin bazen kanpotik. Gainera, hasiera hartan, Euskaltzaindiak gauza on askorekin batera alde ahul asko ere bazituen, normala zenez.

### **Hainbat erabaki**

Lehen bileretako batean erakundearen egoitza Bilbon izango zela erabaki zen, baina bilerak beste hirietan ere egin ahal izateko aukera emanaz.

Orduan harturiko beste erabaki batzuk oraingo ikuspegi eta egoeratik txikiak irudituko zaizkigu, beharbada, baina oinarrizkoak ziren; esaterako, nola idatzi gure hizkuntzaren lehen atala: *euzk-* ala *eusk-*, Azkuek *eusk-* idazkeraren alde egin zuen argi eta garbi, antzinakoena eta euskaldunik eta alderdi-



rik gehienek darabiltena zela argudiatuz. Eguskitza euskaltzaina ez zegoen hain ziur eta ia *euzk-* idazkera hobesten duela dirudi. Honela agertzen du bere iritzi edo irudipena: “Orain beñikpeñ askok, ta balinba geienak Egoaldeko Euskal-Errian *euzk-* dasatela, aipatu zuen”. Luzaro eztabaidatu eta ikertu ondoren, bozkatu egin zuten eta hamar euskaltzainetatik 8k *eusk-* idazkeraren alde egin zuten eta 2k *euzk-*en alde. Horrela, *eusk-* idaztea ebatzi zen.

Baina bigarren atalean ere ez zetozen bat: Iparraldeko hiru euskaltzainak eta Nafarroako biak, bost guztira, *-ara* formaren alde zeuden; Bizkaiko eta Gipuzkoako beste bostak, berriz, *-era* formaren alde. Lehen bozketan horrelaxe, berdindurik bataren aldekoak eta bestearen aldekoak. Bigarren bozketan, *-ara* formaren aldeko bat *-eraren* aldera pasatu zen eta hirugarrenean beste bat pasatu zen *eraren* aldera, eta horrela, 7 *-era* formaren alde eta 3 *-ara* formaren alde geratu zen bozketa. Beraz, *euskera* hobetsi zen.

Beste zalantza bat ere bazen, baina hau erraz ebatzi zuten: hitz nagusia *euskera* izanik, honen eratorria nola idatzi: *euskeldun* ala *euskaldun*. Bigarrena zela erabiliena adierazi zuten eta halaxe ebatzi boto bidez: zazpi izan ziren *euskaldun* formaren alde.

“Academia”, “académico” euskaraz nola esan eta idatzi eztabaidatu zuten gero. Azkuek hartu zuen hitza eta “académico” euskaraz adierazteko *euskal-zaiñ* proposatu zuen, guztiek aho batez onarturik. Akademiaren euskarazko izena nola izango zen gudu gogorragoa izan zela dio *Euskara* agerkariak, baina azkenik *-di* atzizkera bildu zirela guztiak. Bazen zalantza txiki bat hor: *euskalzain* ala *euskaltzain*. Eguskitzak *-tzainen* aldeko idazki luze eta mamitsu bat irakurri zuela dio *Euskera* agerkariak; eta Azkuek *-zainen* aldeko beste batez erantzun ziola. Hiru bozketa egin behar izan ziren. Lehenengoan *-zainen* aldeko 5 boto agertu ziren, *-tzainen*

aldeko 4, eta 1 zuri. Bigarren bozketan, *-zainen* alde 6, eta *-tzainen* alde 4; hirugarren eta azken bozketan, berriz, *-zainen* alde 4, eta *-tzainen* alde 6. Beraz, *euskaltzain* eta *Euskaltzaindia* geratuko dira hurrenez hurren “académico” eta “Academía de la Lengua Vasca” euskaraz adierazteko.

Hasierako bilera haietan erabaki zen Euskaltzaindiak bereztat hartu zuen euskal *alfabetoa* ere. Letrarik gehienak berehala onartu ziren; “s” bustiaren ikurra ebazteko, ordea, eztabaida luzea eta bozketa behar izan ziren. Azkenik, “x” ikurraz idatziko zela ebatzi zen. Honela da osorik Euskaltzaindiak orduan hartu zuen euskal alfabetoa:

bokalak: *a, e, i, o, u, ü.*

kontsonanteak: *b, d, dd, f, g, h, j, k, l, ll, m, n, ñ, p, r, r', s, x, t, tt, ts, tx, tz, y, z (dd eta tt, ikur bakarraz idatziak, gainean marratxoak dutela).*

Erabaki hauek guztiak garai hartan Euskal Herrian ateratzen ziren argitalpenetara bidali zituen Euskaltzaindiak. “Gure Errian agertzen diran albistari edo izparringi oroei eskatu, euskerari dagozkion gai guztietan, naiz idazkera, iztegi ta enparauetan, Euskaltzaindi aunen erabagiak onetsi ta eurentzakotu dagiezala”.

Ohar hau Bilbon 1920ko urtarrilaren 15eko dataz eta euskaltzain Idazkariak (Zadorlariak) sinaturik dator.

### **Euskararen batasuna**

Aurreko asmo, aldarrikapen eta nahi guztien oinarrian dagoena da euskararen batasun beharra. 1918ko urtarrilaren 25ean Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu zen txostenaz ari dela, honela dio *Euskaltzaindia* liburuak: “Helburuen artean batasuna agertzen zen, baina baita ere euskara eta dialektoak zaintzea”.

Euskaltzaindia bere abiadan ari zen gauza txiki baina beharrezkoak, oinarrizkoak, ebatzen. Hala ere, hasieratik zuen egiteko astun bat, arantza bat esango nuke, asko atzeratzea komeni ez zena: euskararen batasuna. Izan ere, begira kontraesana: euskara ikertzeko eta zaintzeko zen erakunde nagusi eta ereduzkoak, muga guztiez gaindi Euskal Herri osoa ordezkatzeko zuenak, euskara baturik ezaz, lehenengo bilerak erdara batuan egiten zituela.

Honen harian Joan Mari Torrealdei eta Imanol Muruaren *Euskaltzaindia* liburuak hau dio: “Lanean hasi zen orduko, arautegian oinarrituz, arazo korapilatsuetan korapilatsuena eta minbera den bati heldu zion, aurrez aurre heldu ere: euskararen batasuna gauzatzeari”.



*1968an Euskaltzaindiaren urte ezteietan Arantzazun bildutako biltzarkideak.*

Beraz, Euskaltzaindiak gai horretaz iritziak bildu nahi izan zituen, Euskal Herriko lau lekutan jardunaldiak antolatuz, hainbat aditu eta horretaz zer esanik zutenak jardunaldi haie-tan mintza zitezen. Horiek Bilbon, Donostian, Lekarozen eta Asparrenen izan ziren eta hitz egin zutenen artean era asko-takoak zeuden: batzuk euskaltzain eta euskaltzale ezagunak eta beste hainbat ez hain ezagunak. Hona *Euskera* agerkarian datozen izenak: A. Campion eta P. Broussain euskaltzainak, Bitor Gaubeka inprimatzailea, Iñaki Ajangiz aita kaputxinoa, Manuel Egileor, Hipolito Larrakoetxea aita karmeldarra, Niko-las Ormaetxea s.j. (“Orixe”), Luis Jauregi, Aingeru Madariaga aita frantziskotarra, Gotzon Urrutia aita klaretarra, Nikolas Cortés, Agustin Anabitarte, Zabala-Arana aita klaretarra, Kruz Goienetxe Amaiurko Erretorea, Buenabentura Oieregi (Arbe-laitz), Federiko Belaustegigoitia, J.B. Eguskitza, R.M. Azkue.

Hauen artean ere askotariko iritziak daude. Badira euskalki bat hautatzearen alde daudenak. Gutxi batzuek *bizkaieraren* alde egiten dute. Gehiagok, eta hauen artean baita bizkaiera-dun batzuek ere, *gipuzkeraren* alde. Badira euskalkietatik ho-berena hartuz euskara literario berri bat eratzea hobesten du-tenak. Euskalki bat ardatz harturik gainerakoez osatzearen al-de daudenak nagusitzen direla dirudi; ezaguna da Azkueren iritzia: gipuzkera osotua zen haren proposamena; eta ez pro-positamen soila, baita egintzaz eta etsenpluz irakatsia ere, *Ardi Galdua* eleberria berak proposatzen zuen euskara horretan idatzia baitago. J.B. Eguskitza euskaltzainak ere onartzen du gipuzkera osotua, baina malgutasun handiz; “gipuzkoar eus-kalki osotua erabilteko eskakizun ori ondo dago; baña bako-txari bere euskalkiz idazteko eskubidea gitxitu barik. Gi-puzkoeraz erdiz erdi eta bere euskalkiz ondo idatziko daula uste daunak, berea erabillita gehiago egingo dau”. A. Cam-pion eta P. Broussain euskaltzainek Euskaltzaindiak eskatuta txosten luze eta mamitsua prestatu zuten gai honetaz, gero Bilboko jardunaldian irakurriko zena. Hauek gaztelaniaz idatzi



*Ezkerretik eskuinera:*

Federiko Krutwig, Luis Villasante, Piarres Laffite, Jose Maria Satrustegi eta Koldo Mitxelena.

zuten beren txostena, beste askok bezala. Lau euskalki literario daudela diote hauek: *bizkaiera*, *gipuzkera*, *lapurtera* eta *zuberera*; eta beste lau “dialectos rústicos” deituak, hau da, literaturan landu gabeak: Nafarroako bi euskalkiak (iparraldekoa eta hegoaldekoa) eta Nafarroa Behereko biak (ekialdekoa eta mendebaldekoa). Literaturan erabili diren euskalkien artean, *bizkaiera* eta *zuberera* bata besteagandik urrutiegi daudela diote. Beraz, euskara batua *gipuzkera* edo *lapurtera* oinarriztat hartuz eratzea proposatzen dute, edota biak aurrez konbinatu ondoren. Hemen pasarte bati erreparatu diot; neure erara euskaraturik, hau dio: *Egia da hizkuntza batu hori artifiziala izango dela. Bai, hala izango da, harik eta eskoletan irakatsia eta egunkari eta liburuen bidez zabaldua izan arte. Gero haurrek sehaskatik entzun eta ikasiko dute berez-berez.*



*Hizkuntza literario guztiak dira, hein batez, artifizialak. Cervantesen gaztelania ez da inondik ere Aragoiko mandazainena bezalakoa.*

Zein izan zen saio eta ahalegin horien emaitza? Jardunaldi horiek 1920. urtean izan ziren. Azkuek 1921eko apirilean agertzen du bere txostena, aurrez gainerako guztiei eskerrak emanez eta haien txostenei iruzkinak eginez.

Dirudienez, giroa ez zegoen horretarako prest. *Euskaltzaindia* liburuak hau dakar 41. orrialdean: “Baina, azkenean, joan-etorri askoren ondoren, bide hertsirik ez hartzea hobetsi zuen, ez gaia eta ez giroa ez zeudelako aski helduta. Azkuek Broussaini idazten dio 1920ko martxoan: ‘Nik goitzxo deritzayot *langue unifié*’ hortaz”.

Euskararen batasunaren amets eta nahia gogoan ongi sarturik, saio fin serioa egin zen, baina behin-behingo baztertzea erabaki zuten abagune hobearen zain; eskutik eta batez ere gogotik guztiz utzi gabe, esango nuke. 1968an, Akademiaren jaiotzako urrezko ezteiak zirela-eta, berriro helduko zioten, gogotsu eta indar berri eta gaztez heldu ere; aurrez hainbat pertsonak eta taldek zin eginez oso-osoan batasunaren alde prest zeudela erakutsi zioten Euskaltzaindiari eta euskal gizarteari.

Lehenengo ahalegin hartatik (1920) azkeneko horretara (1968) gauza asko gertatu ziren, horien artean, Hegoaldeari dagokionez batez ere, Espainiako gerra zibila eta gerra ostea; eta Iparraldea hurbilagotik joko zuen II. Mundu Gerra. “Katakombetako garaia zen, tunel ilun eta luzea igaro arte. Dena zegoen geldi, euskal kulturaren eta literaturaren baratzea sasiak hartua, dena zen eza eta dolua gurean” idazten genuen aurreko artikuluan batean. *Euskaltzaindia* liburuak garai ilun horretaz hau dio: “Gerra garaiko urteak eta gerra ostekoak ez dira errazak izan Euskaltzaindiaren bizitzan, batez ere hasierakoak. Ia hamarkada pare bat *katakombetan* (Haritzelharren hitzetan) pasatu du, isilean, hildakotzat emana (*défunte Académie*, idatzi zuen Lafi-



ttek), *izoztua* Kintanaren esamoldean. *Klandestinitatean* bizi izan zen, Krutwigen iritzian. Azkuek berak, 1939an idazten duenez, ez daki Akademiaren buru den ala izana den.

Egoera hori urte askotan luzatzen da. Espainiako gerra zibilar Mundu Gerra erantsi behar zaio. 50eko hamarkadan, antza denez, Euskaltzaindia ez du inork ezagutzen, dagoenik ere”.

1941ean berriro ekiten die bilerei; hasieran apal-apal eta kontuz, jende gutxirekin. Euskaltzainen batzuk atzerriratuak izan ziren (Damaso Intza eta Sebero Altube) eta beste askoren berririk ez zuten, ez non zeuden ezta bizi zirenik ere. Euskaltzain berriak hautatu behar nahitaez, Bilboko Erribera kaleko egoitzan erdi bakarrik baitzebilen R.M. Azkue. Federiko Krutwig 1942an sartu zen Euskaltzaindian eta hura izan zen, dirudienez, Euskaltzainburuaren laguntzailerik hoberena, Akademia berregiten eta berrantolatzen buru eta bihotz aritu zena. Izan ere, ordurako Azkue urteetan aurrera zihoan eta Federiko gaztearen esku utzi zituen hainbat zeregin. Bestalde, euskal usaineko gainerako talde eta elkarteak bezala, Euskaltzaindia ere erreketete eta falangisten jo-puntuan zen. Beraz, garbi ikusten da ez zela inondik ere egoera erosoak erakundea indartu eta bide onean jartzeko.

### **Euskara batuaren gauzatzea**

Beraren historia kontatzen den liburuak dio Akademiak aurrez aurre heldu ziola batasuna gauzatzeari, baina gauzatze hori ez zela etorriko 1968 arte.

Hamarkada hori, 1960koa, bigarren pizkunde gisa ikusi izan da gurean. Orduan sortu ziren ikastolak; hainbat artista, eskultore, pintore... bateratsu agertu ziren artearen erakustokira; kanta berria indartsu entzun zen han eta hemen, kantaren eta musikaren arloan sinbolo bihurtuko zen Ez dok amairu taldearen plazaratzeaz batez ere; gerora euskal liburu eta diskoaren plaza nagusi bihurtuko zen Durangoko azokak orduan izan



*Koldo Mitxelena*

zuen estreinaldia; pizkunde horretan ezin falta Euskaltzaindia eta euskara batuaz etorri zitzaigun 1968an. Urrats ausarta ematen du euskara zaharra garai berrietarako egokitzten, prestatzen, janzten; lekuan lekuko hizkerez eta euskalki literarioez gain, euskaldun guztien hizkuntza ofiziala izateko jaioa.

Bai polita dela horrela esanda! Baina zenbat buruhauste, lan, eztabaida, eta gudu hori gauzatu arte! Jar dezagun fokua Arantzazuko batzar ospetsuaren aurreko urte eta egunetan:

Euskal idazle eta euskaltzaleen jardunaldiak egin ziren Baionan eta Ermuan. “Baionako Euskal Idazkaritzaren baitan, 1963an Hizkuntza Sail bat sortzen da. Horren egiteko nagusia zera zen: euskara idatziaren batasunari bidea bilatzea. Zortzi hilabetez astero-astero zazpi gizon bildu ziren horretarako, jatorriz gipuzkoar, nafar, bizkaitar, lapurtar eta zuberotarrak; lanbidez, idazle edo irakasle: Telesforo Monzon, Jesus Solaun, Eneko Irigarai, Jean Louis Davant, Jesus Mari Bilbao, Roger Idiart eta Txillardegi”. 1964ko abuztuaren 29an eta 30ean Biltzar Nagusian biltzen dira berrogei euskaltzale Lafitteren zu-

zendaritzapean. “Lafitte eta Larzabal euskaltzainen bidez Euskaltzaindira bidali zituzten erabakiok, Euskaltzaindiak azter zitzan. Hala egin zuten horretarako batzorde bat eratuta. Agirietan ikus daitekeenez, Mitxelena eta Villasante erabakien alde agertu ziren”.

Arantzazukoa bideratzeko bigarren jardunaldiak Ermuan egin ziren 1968ko ekainaren 28, 29 eta 30ean. Gerediaga Elkarteak egin zuen deia eta Jose Luis Lizundia izan zen idazkari. Juan San Martinen ideia izan omen zen. Hemen ere idazle eta euskaltzale ezagunak bildu ziren. “Erabateko sintonian dago Ermua Baionarekin eta geroko Arantzazurekin”.

“Baionan abiaturiko bide horrek onarpen instituzionala behar zuen. Horixe eskatu zioten Euskaltzaindiari idazleek Ermuko Jardunaldietan. (...) Halaxe ulertu zuen Mitxelenak, batzordeburu bezala gaia jorratu zuenean. Euskaltzaindiak ere bai. [Arantzazuko] Biltzarra bukatutakoan, euskaltzain osoek elkarrekin bildu eta agiri bat onartu zuten”. Agiri horretan marrazten ziren euskara batua izango zenaren lerro nagusiak. Batzuen eta besteen iritziak entzun ondoren, Akademiak une hartan erdibide antzeko bat hartu zuen, ortografiaz, *H* letraren erabileraz, morfologiaz, euskal hitz zahar eta berrien formaz... Aditz batua pixka bat geroagorako utzi zen. Hortaz, euskara batua apurka-apurka gorpuztuz eta sendotuz joan bazen ere, haren jaiotza-lekutzat Arantzazu jartzen da eta datatzat 1968ko urriaren 5a. Aditz batua (aditz laguntzailea) 1973an onartu zen eta aditz batua (sintetikoa) 1977an.

### **Geroko giroa**

Eta Arantzazukoaren ondoren zer? Guztiak pozik eta zoriontsu? Ez horixe! Urak handi zetozen euskal idazleen artean. Kontuan izan behar da euskaltzainen artean ere bazirela bestelako joerak, esaterako, Federiko Krutwig lapurtera klasikoaren alde agertzen zen argi eta garbi. Honen esaldi hau

aipatzen da: *Batua asmatua dago dagoeneko, Leizarragak XVI. mendean bateratu baitzuen euskara. Batua lapurtera klasikoa da.* Gabriel Aresti, Jon Mirande eta Luis Villasante, beste batzuen artean, eredu horren alde zeuden, baina gerora, ikusiak ikusiz, utzi egin zuten bide hori eta Mitxelenaren alde-rantz etorri. Hala ere lapurtera klasikoaren lilurak izan zuen bere eragina euskara batuaren hasieran; kutsu hori erraz sumatzen da orduko testuetan, batez ere oraintsukoekin alderatzen baditugu; hauek gipuzkerarantz lerratu dira, batzuek euskara batua 'h'dun gipuzkeratzat hartzeraino.

Buruhauste, eztabaida eta guduak aipatu ditugu gorago. Idazle gazte asko igo zen euskara batuaren trenera. Haietako





ez gutxi euskaldun berriak ziren, hiri edo kale girokoak, unibertsitateko formazioa zutenak. Gogotsu sartu ziren hartan eta hausturaren arriskua sumatzen zen, aurreko belaunaldiko euskal tradizioarekiko haustura arriskua. Euskara batua ez zen euskaltzale guztien eta gizarte osoaren aldetik onartua izan. ‘H’ letra hartu zen gudu horren sinbolo, baina bazen besterik eta sakonagorik ere. *Euskaltzaindia* liburuak hau dio: “Premiei erantzun egokia eman nahian, lan moldea aldatu zuen Euskaltzaindiak, batzordeka antolatuz. Egia esan, 1970eko uztaila bitarteko agiriei erreparatuz gero, ikusten da gomendio bakarra hilen izenei buruzkoa dela. Zer dago barnean? Krisialdi instituzionala, M. Lekuonak ez baitu Arantzazukoa onartzen eta erakundea hausturaren atarian dago. 1970eko uztailan Villasante euskaltzainburu izendatzen dutenean, honek eutsiko dio lan moldearen aldaketari batzordeak indartuz”.

Arrazoiak beti aurki daitezke lehenean jarraitzeko, norberarenean gotortu eta besterena aitzakiatzeko: ‘h’ letra, ahoskatzeko ez dena, ezartzea; benetako hizkuntzaren ordezkuntza artifiziala, gatzgabea, erdarez zipriztindua ezartzea; bizkaiera bezalako euskalki indartsu eta aberatsa baztertzeara... Kontrakotasun honen inguruan enpatiarik eza aurkitzea ez da zaila. Bandoak egin ziren euskara batuaren alde eta kontra. Aldizkari batzuen gotorlekuetatik egiten zitzaion eraso euskara batu jaio berriari, eta borondate oneko euskaltzale on eta leialak, askotan, presio-taldeen erdian gertatu ziren, itxitura itogarritik nola irten ez zekitelako. Giro hori nahiko hurbildik ezagutu izan dugu. Tamalgarria izan zen, bestalde, euskara batua gogoko ez zuten idazle on asko galdu zirela hor bidean, isildu eta erretiroa hartu baitzuten.

Denborak gauzak baretzen daki, guztiz txarturik eta erremediorik gabe ez daudenean, eta hemen ere urak beren lekura etorri dira; hainbaten ahaleginari esker, batez ere Euskaltzaindiari esker, euskara batua euskaldun guztion altxor, euskalki batekoen eta bestekoek topaleku eta guztion etxe



*Kargu aldaketa.*

2005eko urtarrilean hartu zuen Andres Urrutiak Jean Haritxelharren lekukoa.

espiritual bihurtu da. Euskara batua eginez-eginez doa, baina egina ere badago; bere bidean doa, bide onean nik uste. Horregatik, guztion etxe espiritual hori funtsean eraikia eta hornitua egonik, noizbehinka behintzat neure euskalkizko etxetxora joaten naiz eta hura ere albait ondoen txukuntzen eta hornitzen saiatzen naiz, ez ahoz soilik, baita idatziz ere, hala komeni dela deritzodanean.

Eta Euskaltzaindiaren ingurura berriro etorritz, aurrekoengandik jasoriko ondarea jagoten, ikertzen eta bere goiburuari erantzunez, *Ekin eta jarrai* ikusi dut batzordeetako lan isil eta emankorrean. Luis Villasantek (1970-07), Jean Haritxelharrek (1988-12) gidatu dute Akademia Arantzazuko Biltzarretik 2005eko urtarrila arte; data horretan Andres Urrutia notarioa izendatu zuten euskaltzainburu, eta harrezkero bera da gure



Ontzi honen lemazaina. Euskaltzaindiak eraberritze eta eguneratze nabari eta beharrezkoak izan ditu azken urte hauetan, esaterako, euskaltzain emerituen figura ezarri da. Barrura begira, Luis Villasanterekin eratu zen batzordeetako lana sendotu eta bermatu da; kanpora begira, kulturako eta politikako erakundeekiko harremanak sustatu dira. Une honetan hari begira jarri naizenean, mendeurreneko ospakizunetan bete-betean sartua ikusten dut, baina era berean inoiz baino gogotsuago betiko lanari, bere lanari, emana. *Ehuntzen* da mendeurrenerako aukeratu duten goiburua. *Ehun* hitza dago hor mende bateko zenbakia adierazten duena, baina esanahian harago doana: euskararen *ehundegian* ehotzen, ehuntzen den oihal edo ehun fina. Zorionak eta urte askotarako!

*Luis Baraiazarra Txertudi*